

## ESKUALDE BILERETARAKO INFORMAZIOA / 2016ko urtarrila

### **1.- Hezkuntza Sailaren 2015eko diru laguntzen justifikazioa.**

Txosten hau idazteko unean (urtarrilak 20), Hezkuntza Sailak oraindik ez du eman argitara IGEentzako 2015eko diru laguntzen deialdiaren ebazpena. Berez, urrian amaitzen zen ebazpena argitaratzeko epea; lau hilabeteko atzerapena du, beraz, oraingoz. Okerrena da Sailak ez duela eman inolako azalpenik atzerapen horri buruz, nahiz eta federazioek behin eta berriz eskatu; ez du argitu, gainera, ebazpena noiz argitaratuko duen. Egoera hau jendaurrean salatzeaz gainera, Eusko Legebiltzarrean bidea ireki dugu gobernuak auzi honetaz erantzun dezan. Horrenbestez, ez dakigu zein izango den justifikazioa aurkezteko epea; orain arte jasotako informazioaren arabera, ebazpenaren testuan bertan zehaztuko dute.

### **2.- 2016-2017 ikasturteko matrikulazio kanpaina**

Hau da 2016-2017 ikasturterako matrikulazio kanpainaren egutegia:

- **Izena emateko eta eskaerak aurkezteko epea:**  
**On-line:** urtarrilaren 25etik otsailaren 4ra arte. /**Ikastetxean bertan:** urtarrilaren 25etik otsailaren 5era arte
- **Eskatzaileen zerrenda argitaratzeko:** 2016ko otsailaren 16a
- **Behin-behineko zerrendak argitaratzeko:** 2016ko otsailaren 25a
- **Behin-behineko zerrendei erreklamazioak egiteko:** 2016ko martxoaren 9ra arte
- **Eskabideari uko egiteko:** 2016ko martxoaren 9ra arte
- **Behin betiko zerrendak argitaratzeko:** 2016ko martxoaren 17a
- **Zerrendak argitaratzeko (2. eta 3. aukerak):** 2016ko apirilaren 6a
- **Behin betiko zerrendei gora jotzeko errekurtsoak jartzeko:** 2016ko apirilaren 18ra arte

Aurreko urteekiko aldaketarik ez dago ia; hortaz, plaza nahiko izan ez eta baremazioa egin behar izanez gero, aurreko irizpide berberak aplikatuko dira: familia unitatearen errenta, etxebizitzaren hurbiltasuna, ikastetxean senideak izatea ikasketak egiten edo lanean, bestelakoak (familia ugaria, ezintasuna, Eskola Kontseiluaren puntua, 2 gehienez ere...). Aldaketa adierazgarri bakarra da Hezkuntza Sailak jakinarazi duela jarraipen berezia egingo diela erroldatze agiriei; izan ere, Arartekoak hainbat salaketa jaso ditu norberak aukeratutako ikastetxean matrikulazioa egin ahal izateko puntuak lortzearen egindako gezurrezko erroldatzeak direla eta.

### **3.- LOMCEren eta HEZIBERRI dekretuen aplikazioa**

LOMCE onartu zenetik (Alderdi Popularraren gehiengo absolutuaren aldeko botoaz) hezkuntza komunitatea Espainiako estatuko hauteskundeetan zer gertatuko zain egon da, haien emaitzetan itxaropen handiak jarrita. Izan ere, hauteskunde horietan Alderdi Popularrak berriro gehiengo absolutua lortzen ez bazuen LOMCE indargabetzeko akordioa lortu zuten 2013ko ekainaren 13an alderdi politikoen gehiengoak. Hori zela eta, ikusmira handia zegoen abenduaren 20ko hauteskunderi buruz, eta emaitzak ikusita, ezin esan ziurgabetasuna eta zalantzak zeharo argitu direnik. Bistakoa da Alderdi Popularrak ez duela lortu gehiengo absolutua, baina nahiko nahasia da hauteskunde ondoko egoera: ez dago gehiengo parlamentario argirik, eta litekeena da hemendik hiru/lau hilabetera berriro hauteskundeak egin behar izatea. Momentu honetan LOMCEren kontra dauden alderdien diputatuak 187 dira, beraz gehiengo absolutua. Nolanahi ere, Eskola Publikoaren aldeko Estatuko Plataformak dokumentu bat helarazi dio Kongresuari, dagoeneko, akordio hura sinatu zuten alderdiak legegintza ekimenak proposatzen has daitezen LOMCE indargabetzea eskatzeko, lege hori "desegiten" lehenbailehen haste aldera, nahiz eta Gobernu berria eratu arte hau posiblea ez izan.

Bien bitartean, ordea, aurrera jarraitzen du LOMCE ezartzeko egutegiak, eta Euskadin dagoeneko argitaratu dira estatuko lege hori Euskadin zer neurritan ezarriko den argitzen duten dekretu batzuk. Urtarrilaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian bi dekretu argitaratu dira HEZIBERRI 2020 proiektuan jasota zeudenak; dekretu horiek Haur Hezkuntzako (0-6 urte) eta Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza, 6-12 urte, eta DBH, 12-16 urte) curriculumak aldatzen dituzte.

Dekretu horietan araututako irakaskuntzei dagozkien curriculum berriak 2015-2016 ikasturtean ezarri dira, DBHko 2. eta 4. mailatan izan ezik (horietan, 2016-2017 ikasturtean ezarriko dira). Dekretu horien bidez, indargabetuta gelditu dira aurrekoak, 2007an onartuak eta 2010ean partzialki aldatuak.

Hainbat hilabeteko atzerapenez bada ere, dekretuen behin betiko testuaren berri jaso dugularik, horiek aztertze eta Euskadin LOMCE zer neurritan ezartzera behartzen duten jakiteko moduan gara orain.

### 1.- Haur Hezkuntzako 237/2015 Dekretua:

Dekretu berria onartzeak ez du ia batere aldaketarik eragingo aurreko curriculumean; ikuspegi pedagogikoa bakarrik planteatzen da, gaitasunak barneratzeari dagokiona.

### 2.- Oinarrizko Hezkuntzako 236/2015 Dekretua:

Dekretu honek planteatzen dituen berritasun nagusiak adierazi baino lehen, 13 artikuluko 3. Puntuan, Curriculumaren antolaketa buruzkoa, hitzez hitz testua hau esaten du: *“Arlo edo ikasgai bakoitzeko oinarrizko konpetentzia bakoitza eta bere osagaiak, helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak agertzen dira **oinarrizko arautegian**, eta II. eranskinak eta ikastetxe bakoitzaren Curriculum Proiektuak horiek osatzen ditu, Dekretu honen 23. artikulua betez”*.

Horregatik, dekretua irakurri ondoren pentsa baliteke ere LOMCEk ezarritakoaren parte handi bat alboratzen edo saihesten duela, berriaz jasotzen du oinarrizko arautegiarekiko mendekotasuna, hau da, gobernu zentralak nahitaezko izaeraz ezarritakoarekiko onespina. Egoera hori kontuan hartuta, gure ustez dekretuaren alderdi deigarrienak direnen azalpena egingo dugu jarraian.

- Lehen Hezkuntzaren antolaketa: dekretu horretan agertzen den curriculum proposamenak hiru ikasmilako bi ziklotan banatzen du etapa (1. maila, 2.a eta 3.a) eta (4. maila, 5.a eta 6.a). Proposamen orientatiboa izango da ikastetxeentzat, eta, hortaz, etapa bina ikasmilako hiru ziklotan egituratzen duen banaketari eutsi ahal izango diote, hala erabakiz gero.

- Berrikuntza gisa, ikasleen irteerako profil orokorraren definizioa agertzen da; Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza amaitzean ikasleek oinarrizko zer gaitasun izan behar dituzten adierazten du, oro har.


- Aldatu egin da ikasleek oinarrizko hezkuntzan zehar bereganatu beharreko gaitasunen egitura. Oinarrizko 5 gaitasun ezartzen dira (hauek dira oinarrizko gaitasunak, arlo edo irakasgai guztien lan bateratuan sustatu eta landu beharrekoak: ikasten eta pentsatzen ikastea – hitzez eta modu digitalean komunikatzea – elkarbizitzarako gaitasuna – ekimena eta espiritu ekintzailea – izaten ikastea), eta diziplina baitako oinarrizko 7 gaitasun (hizkuntza eta literatura komunikazioa – matematikoa – zientifikoa – teknologikoa – sozial eta zibikoa – artistikoa – motorra)

- Orain arteko hizkuntza ereduak eutsiko zaie (A-B-D); hortaz, gure ikuspegitik, ez da bermatuko ikasleak benetan elebidunak izatea derrigorrezko eskola aldia amaitzean.

-Lehen Hezkuntzan, LOMCEk proposatzen zuen planteamenduari eutsiko zaio, “Conocimiento del medio-Ingurune” arloa bi ikasgaitan –Naturaren Zientziak eta Gizarte Zientziak- banatzeari dagokionez.

-Erljio Katolikoari LOMCEn agertzen zen tratamendu bera emango zaio, Aitasantutzaren eta Espainiako estatuaren arteko akordioan oinarrituta: ikastetxeek nahitaez eskaini behar dute Erljioa, eta famili bakoitzak aukeratuko du ikasleek gai hori ikasiko duten edo ez. Gaia aukeratzen ez duten ikasleek nahitaez ikasi beharko dute Balio Sozialak eta Zibikoak ikasgaia, Lehen Hezkuntzan, eta Balio Etikoak ikasgaia, DBHn. Beste erlijio batzuen irakaskuntza Espainiako estatuak erlijio horiei dagokien agintari erlijiosoekin egiten dituen akordioei egokitu zaie.

Bi ikasgaiak, Erljioa eta Balioak, ebaluagarriak dira, eta kontuan hartuko dira ikaslearen espediente akademikoan. Erljioa ikasgaiaren curriculumaren edukia eliz agintarien eskumena izango da, baita ikasgai hori emateko irakasleen hautaketa ere, baina kontratu horien kostu ekonomikoa, aldiz, estatuaren kontura izango da, eta, Euskadiri dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren kontura.



- Ibilbide bereziak DBHko 4. mailan: LOMCEk dioenez, DBHko 4. mailan ikasleek bi ibilbideren arteko aukera egin beharko dute, bat Batxilergoaren hastapen modukoa eta Lanbide Hezkuntzari lotua bestea. Dekretuan, ordea, ez da aipatzen bereizketa hori 4. mailan, nahiz eta 3. eta 4. mailetan ikasleek matematikako bi ikasgai motaren arteko aukera egin behar duten, bat irakaskuntza akademikoetara bideratua eta bestea irakaskuntza aplikatuetara bideratua. Bestalde, LOMCEk 4. mailako bi ibilbideen artean banatzen dituen ikasgaiak HEZIBERRIren dekretuan ere ageri dira, baina bi bloketan banatuta; hala, ikasleak bi bloke horietako bateko ikasgaiak aukeratu beharko ditu. Hautazko hainbeste ikasgai izateak arazoak sor ditzake taldeak egiteko eta ordutegiak egokitzeko garaian.

- Eskola Kontseiluak-OOGk izango du Hezkuntza Proiektua eta Hizkuntza Proiektua onartzeko eskumena.

- Dekretuaren zenbait ataletan familien lankidetzaren, inplikazioaren eta prestakuntzaren garrantzia aipatzen da, baina ez da zehazten hori sustatzeko neurririk, ezta horiei buruzko finantzaketarik ere. Kapitulu bat "Autonomian Sakontzeko Proiektua" izena du; proiektu hori hezkuntza berritzatzeko proposamen bat egiten duten ikastetxeei aplikatuko zaie, baldin proposamen horretan jasotzen badira esparru pedagogikoan eta curriculumean hartu beharreko erabaki bereizgarriak, bai eta antolaketan kudeaketa ekonomikoan eta langileen kudeaketan hartu beharrekoak ere, irakaskuntza prozesuak eta ikasleen emaitzak hobetzeko asmoz. Era berean, esaten du ikastetxeen kalitatea sustatze aldera baliabide gehiago izendatu ahal izango zaizkiela ikastetxe publiko jakin batzuei, baldin eta burutu behar dituzten proiektuen eta eskolatutako ikasleen baldintzen arabera egoki irizten bazaio.

- **EBALUAZIOAK:** LOMCEk dio derrigorrezko hezkuntzan amaierako 3 ebaluazio egin behar dituztela ikasleek: Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailetan eta DBHko 4. maila amaitzean. HEZIBERRIren dekretuan hiru ebaluazioa aipatzen dira, baina enuntziatua estatuko legean baino askoz ere lausoagoa da. Ezaugarri nagusi hauek dituzte Eusko Jaurlaritzaren dekretuan agertzen diren hiru ebaluazio horiek:

\* Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailetako ebaluazioek izaera diagnostikoa edukiko dute, eta funts publikoen sostengua duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan egingo dira. Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazioa barne ebaluazio bat izango da, eta ikastetxeek berek egingo dute, Hezkuntza Sailak ikastetxeen esku jartzen dituen irizpideak eta ereduak kontuan hartuta. Ebaluazio horren bidez egiaztatuko da zenbateraino menderatzen dituzten ikasleek gaitasunak, hizkuntza komunikazioan eta literaturan (euskara, gaztelania eta ingelesean), matematikan eta zientzia arloan. Hezkuntza Sailak lagin izaerako ebaluazio batez osatu ahal izango du ebaluazio hori.

\* Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ebaluazioa ikastetxetik kanpokoa izango da, eta oinarrizko honako gaitasun hauek ebaluatuko ditu, gutxienez: hizkuntza komunikazioa eta literatura (euskara, gaztelania eta ingelesa), matematika eta zientzia, baita ahozko adierazpena ere. Kanpo proba horren emaitzak ez du baldintzatuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako sarbidea (DBH). Baina ez dugu argi ikusten Lehen Hezkuntzako seigarren mailako kanpo ebaluazio horri dagozkion proben edukia zer administraziok erabakiko duen, estatukoak edo erkidegokoak, zera baitio Hezkuntza Ministerioak onartutako Lehen Hezkuntzako curriculumaren dekretuak: *"alde z aurretik autonomia erkidegoei kontsulta eginda gobernuak ezartzen dituen proben ezaugarri orokorrekin bat etorrita egingo da ebaluazio hori"*

\* Bi ebaluazio horien emaitza orokorrak identifikazio daturik gabe argitara emango dira, ikastetxeak emaitzen arabera sailkatu ahal izateko, ikastetxeen testuinguruaren ezaugarri sozioekonomikoak eta soziokulturalak kontuan hartuta.

Dekretuak orobat dio diagnostikoko ebaluazio bat egingo dela DBHn, baina ez du zehazten zer ikasmaitan izango den.

\* **DBHko 4. mailako ebaluazioa:** ebaluazio honen garapenari buruzko artikulua laburra eta nahiko nahasgarria da probaren ezaugarri dagokionez. Dekretuak dioenez, DBHko Graduak titulua eskuratzeko gainditu egin beharko da amaierako ebaluazioa, baita etapa horri dagokion amaierako kalifikazioan bost puntu edo gehiago atera ere (10 puntu izango dira guztira). Batxilergoko edo LHko Tarteko Graduak ikasketak egiten jarraitzeko, ezinbestekoa izango da titulua, hau da, DBHko 4. mailaren amaieran amaierako banakako ebaluazioa gainditzea, zeinetan egiaztatuko baita dagozkion gaitasunak zenbateraino menderatzen dituzten ikasleek. Titulua lortzen ez duten ikasleek ikasketen agiri bat jasoko dute, ikasleek azken ikasturtean matrikula egina zuten ikastetxeak emana. Amaierako ebaluazio horren edukiari dagokionez, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioari dagokionez dugun zalantza bera sortzen zaigu, zera baitio gobernu zentralak onartutako oinarrizko curriculumaren dekretuak: *"Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioak zehaztuko ditu proben ezaugarriak Espainiako Hezkuntza Sistema osorako, eta hark diseinatu eta ezarriko du deialdi bakoitzerako edukia"*

### 3.- Batxilergoko dekretua:

Euskadiko Eskola Kontseiluak Batxilergoko dekretuari buruzko irizpena onartu zuen azaroaren 19an; irizpen horren kontrako botoa eman zuen eskola publikoko familien ordezkariak, baita irakaskuntzako sindikatuek ere. Laburtuta hauxe da familiek kontrako botoan egindako adierazpena:

1. *Gure ustez, gaur egungo ziurgabetasun egoerak inola ere ez ditu justifikatzen egoera berrira egokitzeke ezarritako aldaketan berri ikastetxei eta hezkuntza komunitateari aditzera emateko garaian Hezkuntza Sailak izandako zehaztasun falta, atzerapenak eta zalantzak.*
2. *Artikuluetan ez da beste daturik ematen banakako ebaluazioaren eta amaierako ebaluazioaren arteko desberdintasunei buruz, zeinak agertzen baitira zehatzago definituta Errege Dekretuaren 34. artikuluan. Horrek guztiak berarekin dakar LOMCEk ezartzen duen Batxilergo amaierako probaren onespena.*
3. *Dekretu proiektuak ez dio behar bezain argi uko egiten LOMCEren alderdi negatiboak ezartzeari.*
4. *LOMCEk Batxilergoan Erlijioa sartzeko arauari eusten dio, eta horrek nahasketa sortzen du hautazko irakasgaien eskola orduen banaketari buruz. Kontuan hartu beharra dago ez LOMCEk eta ez Aitasantutzaerikiko konkordatuak ez dutela behartzen irakasgai hori eskaintzera.*
5. *Adierazgarria da aipamen zehatzik ez egitea Eskola Publikoak gaur egungo euskal gizartearen interes komun, askotariko eta ez-dogmatikoen defentsan duen garrantziariz. Kontseiluak dekretuan alderdi hori sartzeko eskaria egin beharko luke gure ustez.*
6. *Gure iritzian, eskola orduak gehitzeak ez dakar Batxilergoko hezkuntza jarduerak hobetzea, baizik eta, alderantziz, asteke eskola orduen gehiegizko karga, zeinak eragin baitezake ikasleek emaitza akademiko kaskarragoak izatea.*

Batxilergoko dekretua oraindik ez du onartu Gobernu Kontseiluak, eta, beraz, asteak igaroko dira hura argitaratzerako.

### **4.- Heziketa laguntza behar duten ikasleak eskolatzeari loturiko ekimenak.**

Azaroaren 7an, 22 IGEtako ordezkariak **BAIKARA FEDERAZIOA**ren Batzar Orokorra egin zuten, Zarautzen. Batzar horretan, ohiko aztergaiak gainera, eztabaida sakona egin zen hainbat egoera direla medio (epea kanpoko matrikulazioa, curriculumarekin loturiko zailtasuna, ingurune sozioekonomikoa, etab.) heziketa laguntza espezifiko behar duten ikasleak eskolatzeari buruz. Eztabaidari ekin aurretik, matrikulazioari buruzko datu batzuk eman ziren, eta, jarraian, eztabaida interesgarria sortu zen IGEen ordezkarien artean. Amaieran, testu bat onartu zen, gai horri buruzko gogoeta eta proposamen zenbait biltzen dituena. Testu hori eta Batzarrean emandako datuak Federazioaren webgunean eskuragarri daude, honako esteka honetan:

<http://www.baikara.eus/agiri-pribatuak/baikarako-batzar-orokorrean-hartutako-erabakiak/>

Testu horren helburua da jendaurrean zabaltzea eta hezkuntza komunitateari, gizarteari eta erakunde publikoei helaraztea, gure ustez premia egin beharreko eztabaida bat abian jartzearren. Hala ere, egoera honek ez dionez Gipuzkoari soilik eragiten, Autonomia Erkidegoko lurralde guztiei baizik, eta egoera are okerragoa denez, gainera, beste lurraldeetan, Zuzendaritza Batzordeak erabaki zuen testua gainerako federazioei eta EHIGE Konfederazioari bidaltzea. Hala, akordioa lortuz gero, Erkidego osoan aurkeztuko da testua jendaurrean. Gainerako federazioak (BIGE –DENON ESKOLA) eta EHIGE bat datoz planteamendu horrekin, eta, hala, dokumentua aurkezteko prentsaurrekoa egitea erabaki da; matrikulazio kanpaina amaitutakoan egingo da.

### **5.- Intereseko beste gai batzuk**

- **Rural Kutxarekiko akordioa:** zenbait IGEk BAIKARAren eta Rural Kutxaren arteko hitzarmenaren iraupenari buruz egindako galderak direla eta, jakinarazi nahi dugu akordioan hitzartutakoa ez dagokiola 2015-2016 ikasturteari soilik; alegia, hurrengo ikasturteetan ere indarrean egongo dira adostutako baldintzak.